



## 2. MAILA

### Azterketa idatzia

A

EREDUA

Deiturak: \_\_\_\_\_

Izena: \_\_\_\_\_ NA: \_\_\_\_\_

\*\*\*\*\*

#### Azterketa idatziak bi zati izango ditu

- Entzumena
- Irakurmena eta idazmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste bi zatiak, irakurmena eta idazmena, ondoren.

Entzumen-proba amaitu ondoren, **ordubete eta 45 minutu** izango dituzu irakurmenaren eta idazmenaren ariketak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposaturiko denbora
<b>Azterketa idatzia</b>	Irakurmena	10	20 puntu	45 min inguru
	Idazmena	15	30 puntu	60 min inguru
	Irakurmena eta idazmena	28	50 puntu	<b>1 h 45 min</b>
	Entzumena	10	20 puntu	

Azterketa deialdia: **2008ko urria**

# HADE



## ENTZUMENA

### 1. TESTUA

Ondoren, Euskadi Irratiak **Fenix zunda espazialari** buruz eman duen berria entzungo duzu.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu.

Entzuten duzun bitartean aukeratu erantzun zuzena.

#### Adibidea:

0. *Noiz hartu du lurra zunda espazialak?*

- Duela zazpi minutu.*
- Argazkiak bidali eta gero.*
- Goizaldean lurreratu da.*

1. Nolakoa izan da Fenix ontziaren misioa?

- Helburua arrakastaz lortu du.
- Porrot egin du azken unean.
- Gorabeheratsua izan da.

2. Zertarako erabili dituzte frenatze-motorrak?

- Jausgailuak ireki ahal izateko.
- 653 miloi km egiteko.
- Zazpi minutuan lurreratzeko.

3. Martitzeko zein tokitan pausatu da?

- Espero ez zuten tokian.
- Aurrez pentsatuta zegoen lekuan.
- Hego poloan, espero zen lekutik gertu.

4. Zer esaten du izotzari buruz?

- Lur-azalean ikusi dute, lur lauan.
- Hondar eta harkaitzen artean aurkitzea espero dute.
- Lur azpian aurkituko dutela espero dute.

5. Zein da misioaren helburua?

- Orain dela 32 urte egindakoa errepikatzea.
- Ura eta gai kimiko zenbait aurkitzea.
- Bizitzarik ez dagoela ziurtatzea.

6. Zer uste du Elena Rosalesek?

- Lurrean sortu bazen, han ere bizia izan litekeela.
- Lurrean bai, baina ez duela uste Martitzen ura aurkituko dutenik.
- Karbonoa eta elektrizitatea besterik ez dutela espero aurkitzea.

**Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:**

<b>0.- C</b>	<b>1.-</b>	<b>2.-</b>	<b>3.-</b>	<b>4.-</b>	<b>5.-</b>	<b>6.-</b>
--------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------

## ENTZUMENA

### 2. TESTUA

Txiliku idazlearen *101 gau* liburuaren pasarte bat entzungo duzu. Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

#### Adibidea:

0. *1001 gau* liburuko Xerezaderekin zerikusia du liburuak?

- a. Ez du jatorrizko liburuarekin zerikusirik.
- b. Antzekoak dira bi liburuak egituran.
- c. Bere liburuan ere azaltzen da pertsonaia bera.

1. Zer kontatzen du idazleak *101 gau* liburuan?

- a. Ekialdeko istorioen bilduma da Txilikuren liburua.
- b. Bere bizitzan zehar gertatutako abenturak bildu ditu.
- c. Egunean bertan gertatutako pasadizoak edo lehenagokoak.

2. Zein ahuldade zuen Frantziako Luis erregeak?

- a. Mesfidatia zela bere gortean zituenekin.
- b. Aztien iragarpenetan sinesten zuela.
- c. Osasun-arazoak zituela eta askotan gaixotzen zela.

3. Zergatik zigortu nahi izan zuen astrologoa?

- a. Bere iragarpenak bete ez zirelako.
- b. Aztiak traizioa egin ziolako.
- c. Erregea hil nahi izan zuelako.

4. Zer egin zuen astrologoak?

- a. Ezkutatu egin zen, hilko zuten beldurrez.
- b. Ihes egin zuen erregearen gortetik.
- c. Ez zen ikaratu eta trikimailua prestatu zuen.

5. Zein zurrumurru zabaldu zuen astrologoak?

- a. Erregea hil egingo zela bera baino lehenago.
- b. Bera erregea baino hiru egun lehenago hilko zela.
- c. Erregea hilko zuela hiru egun barru.

6. Zer egin zuen erregeak?

- a. Astrologoa akabatzeko agindua eman zuen.
- b. Astrologoa bere erresumatik erbesteratu zuen.
- c. Astrologoa libre utzi zuen, luze bizi zedin.

**Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:**

<b>0.- b</b>	<b>1.-</b>	<b>2.-</b>	<b>3.-</b>	<b>4.-</b>	<b>5.-</b>	<b>6.-</b>
--------------	------------	------------	------------	------------	------------	------------

## ENTZUMENA

### 3. TESTUA

Euskadi Irratian Belen Altunak bere iritzia irakurriko du.

Entzungaia **bi aldiz** entzungo duzu. Entzuten duzun bitartean, aukeratu erantzun zuzena.

#### Adibidea:

0. *Auzitegi Konstituzionalak nolako adostasunarekin berretsi du Paritate Legea?*

*a. Gehiengoaren adostasunarekin.*

*b. Epaille kontserbadoreen desadostasunarekin.*

*c. Bi epaille kontserbadoreren adostasunarekin*

*d. Epaille guztien adostasunarekin.*

1. Zein da Paritatearen Legearen helburua?

a. Hauteskunde-zerrendetan emakumezkoen presentzia %60ra iristea.

b. Hauteskunde-zerrendetan gizonezkoen presentziak %60 ez gainditzea.

c. Hauteskunde-zerrendetan gizonezkoen presentzia %40ra ez iristea.

d. Hauteskunde-zerrendetan emakumezkoen presentzia eta gizonezkoena berdintzea.

2.- Zein da Belen Altunaren iritzia legeari buruz?

a. Legearen diskriminazio-neurri xelebrea dela.

b. Lege-diskriminazio zuzena dela.

c. Legeak ez duela inoren diskriminaziorik ezartzen.

d. Berdintasun-legeak gizonezkoak diskriminatzen dituela.

3.- Zer esan nahi du "kristalezko sabaia" izeneko efektuak?

a. Emakumezkoak oposaketetan goi-mailara iristen direla.

b. Emakumezkoak aginterako aukeratuak ez izateko joera dagoela.

c. Emakumezkoek legearen babes jasotzen dutela.

d. Enpresetan eta politikan ere oposaketak egin behar direla.

4.- Zer esan nahi du "Hamaika ikusteko jaiok gara" esaldiarekin?

a. Politika feminizatu dela dagoeneko lege berriei esker.

b. Agian noizbait gizonezkoen parte-hartzea sustatu beharko dela.

c. Emakumezkoen parte-hartzea muga litekeela egunen batean.

d. Gizonezkoen parte-hartzea bultzatzeko legea onartu berria dela.

**Aukera ezazu erantzun egokia eta jar ezazu dagokion letra ondoko laukietan:**

<b>0.- a</b>	<b>1.-</b>	<b>2.-</b>	<b>3.-</b>	<b>4.-</b>
--------------	------------	------------	------------	------------

## IRAKURMENA ETA IDAZMENA

### IRAKURMENA

#### 1. TESTUA

*Argia* astekarian ateratako 4 libururen berri irakurriko duzu. Irakurri testuak eta horien ondorengo esaldiak. Idatzi laukitxoetan zein testuri dagokion esaldi bakoitza. Esaldi **bat sobera dago**, eta *0* adibidea da.

#### A. IZAR-MALCOAK

**Fernando Morillo**


**AIZKORRI**

116 orrialde

6,95 euro

**HAMASEI URTEKO GAZTE BATEN ARAZOAK**

Gazte-literaturan Fernando Morillok kaleratu duen laugarren nobela da «Izar-malkoak» deritzana. Protagonizatzen Beñat du, hamasei urteko gazte informatikazale eta nahiko ezkorra. Mutil honek, asko espero ez duenean, izugarri erakartzen duen neska ezagutuko du eta berarekin ateratzeko aukera ere izango du bolada batean. Maitasunaz eta sexuaz gozatuko du zoratzerraino menderatuko duen neska horrekin, baina bizitza ez omen da paradisia, bide gogorra eta konplexua baizik, edo horrela uste du «hacker» izateko bidean ondo kokatua dagoen gazte horrek behintzat, eta halako batean bere uste horren froga garbia izango du berak ere.



#### B. TRATAKTUS FILOSOFIKUM SAKONIS

**Xabier Galarreta**


**HIRIA**

106 orrialde

10,7 euro

**GALARRETAREN NOBELA PUNKY-NIHILISTA**

Xabier Galarretaren azken nobela honek 2000. urtean kaleratu zuen «Gaueko abentura» liburuarekin lotura handia dauka, biología bat osatzerainoko lotura, egia esan. Irakurleak osatu behar duen puzzle handia baino ez den narrazio honen ardatza bakarrizketa da, non ironia, absurdua eta halako espiritu punky-nihilista batean oinarriturik, idazlearen/gizakiaren bakardadea uzten den agerian. Xabier Galarreta literatur mugimendu eta talde guztietatik aparte bide bakarti eta pertsonala urratuz dabilen idazlea dugu. Argitara eman dituen liburuen artean, honakoak aipa genitzake: «Gauak gauari», «Gaueko abentura», «Zenbaki sorginduak», «Itsasoko istorioak», «Itsasargiko misterioa», «Argi ilunean» eta «Murruez bestaldean»



#### C. ERRAUTSERA ARTEKO SUGARRA

**Imanol Zurutuza**

**ELKAR**

207 orrialde

13 euro

**IMANOL ZURUTUZAREN LAN ERREPIKAEZINA**

Hamaika lan idatz dezake etorkizunean Imanol Zurutuzak, baina ezingo du «Errautsera arteko sugarra» errepikatu, benetan gertatu zen gaixaldi eta heriotz batek bultzatu zuelako nobela hau idaztera, eta bertan islaturik ageri diren sentimenduak eta bizipenak harekin loturik daudelako. Emaztea galdu du idazlaneko protagonista den alargunak, eta bakardadeak eta atsekabeak eraginda ekiten dio liburua idazteari. Bere oroitzapenen ziztadak eramango du gizakia idazten hasi zenez geroztik heriotzaren inguruan egin dituen hainbat gogoeta poetiko zein prosazkoekin eta bere emazte zenak jasan zuenarekin lan hau osatzera. Erabaki hori hartzearekin batera, ordea, hegazkin bat ikusten du zeruan barrena, eta han barruan doan emakume baten mina hasten da somatzen.



## D. PAUL NICHOLSON. HIRU ASTE RAMALAKO SETIOAN

Jose Mari Pastor

EGUNKARIA

90 orrialde

10 euro

PAUL NICHOLSONEK RAMALAN BIZI ZUENA

Euskaldunon Egunkariak EHNEko Paul Nicholsoni Ramalako Mukatan hogeita hiru egunez Arafaten giza ezkutu bezala bizi izandakoa agertuko zuen erreportaje liburua egiteko eskatu zionean, gizona prest egon zen esperientzia hura kontatzeko, baina garbi adierazi zien berak ez zekiela libururik idazten. Beraz, egunkariko nazioarteko sailaren arduraduna den Jose Mari Pastorren esku jarri zuten Paul Nicholsonek zioena agertzeko eginkizuna. Eta horixe da «Paul Nicholson. Hiru aste Ramalako setioan» liburua jasotzen duena: bost hilabete Ramalatik irten ezinik zeramatzan Arafat palestinar presidentea israeldarren erasoetatik babesteko, nazioartetik elkartasuna adieraztera joandako Paul Nicholson eta beste hainbat lagunek bizi izan zutena.



### Egitekoa:

Idatzi laukitxoetan esaldi bakoitzari zein testu dagokion.

- Letra bera behin baino gehiagotan erabili beharko duzu.
- Esaldi **bat sobera dago**.

### Adibidea:

0. Protagonista nahiko ezkorra da.

1. Ezin dugu idazlea inolako mugimendu edo taldetan kokatu, berezia da.

2. Polizia-nobela da.

3. Idazleak beste batek bizi izandakoaz idatzi du.

4. Protagonista nerabe bat da.

5. Aurrez uste zuena frogatuko du protagonistak.

6. Bizitzaren gazi-gozoak erakusten ditu, une goxoak eta nekezak.

7. Oinaze handi batek bultzatuta idatzitako liburua da.

8. Idazle berak idatzitako beste liburu batekin du zerikusia.

## 2. TESTUA

*Berria* egunkarian argitaratutako iritzi-artikulu bat daukazu ondoren

### Egitekoa

Irakur ezazu hurrengo artikulua, eta ondorengo orrian aurkitu testutik kendutako zatiak. Idatzi testuko zatien **letra** laukietan, adibidean egiten den bezala.

## Umeen loditasuna arazo

Patxi Juaristi  
Soziologoa

Azaroaren 8a elikaduraren eta sukaldaritza osasuntsuaren egun europarra izendatu dute. Horrekin, umeen artean elikatzeko modu osasuntsuak sustatu nahi dituzte, eta Europar Batasunean (EB) dauden ume lodien arazoari aurre egin.

	<b>0-A</b>	
--	------------	--

Are gehiago, urtero ume lodien kopurua 400.000 handitzen da. Etorkizuneko belaunaldien gehiegizko kiloak gero eta buruhauste handiagoa dira Batasunean eta, oro har,

	<b>1</b>	
--	----------	--

osasunean egiten den gastua handitu eta gure gizartearen ekintzarako eta garapenerako gaitasuna murriztu. *Gosaldu, bazkaldu, askaldu eta afaldu, eta ogasuna galdu.*

Elikaduraren eta sukaldaritza osasuntsuaren egun europarra ospatzeko Bruselan egin zen ekitaldian, Markos Kyprianou-k, EBko osasun-komisarioak, Batasuneko goi mailako hainbat sukaldariren laguntzarekin, osasuntsu jateko hainbat aholku eman zituen.

	<b>2</b>	
--	----------	--

Alde batetik, kontuan hartu behar da mendebaldeko gizarte aberatsetan, jan dezakeguna baino elikagai gehiago ditugula gure etxeetan. Munduko beste toki batzuetako umeak ez bezala, gure umeak oparotasunean hazten ari dira. Loditu egiten dira, asko eta txarto jaten dutelako. *Gutxiegia eta larregia, beti kaltegarria.*

Bestetik, bizitza sedentarioa bultzatzen duten gizarteetan bizi gara.

	<b>3</b>	
--	----------	--

Ezin dugu ahaztu, bestalde, bizi garen gizarteak umeen anomia, identitate galera eta autoestimatu

baxua bultzatzen dituela, eta hori saihesteko, asko direla behar duten baino gehiago jaten dutenak; hain zuzen, urdaila beteta edukitzeak eguneroko arazoak ahazten laguntzen duelako.

Gauzak horrela, 2002an, *The Lancet* aldizkari ezagunak esan zuen XXI. mendeko *izurria* haurren gizentasuna dela. Ebbeling, Pawlak eta Ludwig ikerlariek aldizkarian argitaratu zuten txostenaren arabera, azken 30 urteetan haur gizenen kopurua zazpi aldiz biderkatu da mundu osoan.

	<b>4</b>	
--	----------	--

Zenbait kalkuluren arabera, osasunean egiten den gastu guztiaren %5 eta %7 bitartean gizentasunarekin zerikusia duten gaixotasunekin loturik dago.

Koipedun produktuak deabrutu egin ditugu, eta kolesterol baxuko galletak, irin osoko ogia eta esneki gaingabetuak jaten hasi gara. Gure umeak *light* kulturaz hazten ari dira, nahiz eta gero eta pisu handiagoa duten. Egia esan, ez nau harrizten gero eta ume lodi gehiago izateak, kontuan hartzen badugu kalorien aurkako gerra guztiz azalekoa eta interesatua dela.

	<b>5</b>	
--	----------	--

Izan ere, esneki gabetuak edo azukrerik gabeko produktuak, azukredunak edo esneki gairik gabeko produktuak, azukredunak edo esneki gairik gabeko produktuak baino gehiago ordaintzera behartzen gaituzte, eta, gero, aurreztu duten azukrea eta esnegaina berriro saltzen digute, etekinak handituz.

Hala eta guztiz ere, ez da hori gure gizartearen paradoxarik handiena, baizik eta pisu handiegia duten milioika umeren alboan, gosez hiltzen diren umeak daudela. *Jan gabeak hiltzen, eta janegiak ere bai.*

**Berria**, 2007ko azaroaren 27a



- A.** *Egia esan, zerbait egin beharra zegoen, modu sinbolikoan bada ere. Izan ere, Europako Batasuneko 22 milioi ume lodi daude, edo dagokien baino pisu gehiago dute.*
- B.** Gehiago esango dut, askotan iruditzen zait multinazional handien etekinak handitzeko pentsatuta dagoela.
- C.** Dena dela, guztiok dakigu errezetak ematea baino zerbait gehiago beharko dela arazoa konpontzeko.
- D.** Nire ustez, ez zitzaion arrazoirik falta aldizkariari *izurri* hitza erabili zuenean. Kontuan hartu behar da gizentasuna osasun publikoko arazo larri bihurtzen ari dela herrialde aberats askotan, eta neurritz gaineko kiloak zama astuna direla osasun zerbitzuentzat eta administrazioentzat.
- E.** Eta, ondorioz, gure umeek gero eta kaloria gutxiago erretzen dute. Are gehiago, kontuan hartu behar da umeak autoz eramaten ditugula toki guztietara, nahiz eta askotan oinez egiteko moduko distantziak izan.
- F.** Mendebaldeko herri aberatsetan. Izan ere, gure umeen pisua gero eta handiagoa bada aurrerantzean, osasun arazoak ugaritu egingo dira,

*Idatzi dagokion **letra** ondoko laukietan:*

**0. Adibidea: 0 = A**

<b>Hutsuneak</b>	<b>0</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>5</b>
<b>Testu zatiak</b>	<b>A</b>					

### 3. TESTUA

Jasone Osororen artikulu bat irakurriko duzu.

#### 1. egitekoa:

Irakurri testua eta ondorengo galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi **letra** beheko laukietan.

## Zintzotasuna



**Gente** - 07.10.10 -  
JASONE OSORO

Bertute bat? Ba... zintzo jokatzea gustatzen zaidala. Bestela esanda, beti esatea pentsatzen dena, esandakoa onerako edo txarrerako izan daitekeen baloratu gabe.

Hara, jende askori entzun izan diot beren bertute bat dela zintzotasuna. Kontuz, zintzo jokatzea, ez zintzoa izatea, ez baitira gauza bera. Komenigarria al da beti zintzo jokatzea? Benetan eskertzen al da beti pentsatzen dena esatea?

Adiskide bat negarrez etortzen zaigunean bikotearekin utzi duela kontatuz, «ondo egin duzu, adarrak behin eta berriz jarri dizkizu» esan behar al zaio? Txakurkumea erosi berri duenari «zuk **hutsune** afektibo handia duzu eta txakur batek ez dizu hori estaliko» esan behar al zaio? Zintzo jokatzea zilegi al da beti? Ja eta ja!

Kontua da gaur egun gainbaloratua dagoela zintzo jokatzearen kontua. Nire gurasoek jaso zuten heziketa katolikoaren arabera, pertsonak zintzoak izan behar ziren eta, horretarako, askotan hobe zuten isilik egon.

Gaur egun, aldiz, «egia» esatea da gehien baloratzen dena, nahiz eta jakin egia horrek askotan min egingo diola zure aldamenekoari.

Bada, zer nahi duzue esatea. Nik, aukeran, nahiago ditut tarteka gezur txikiak etengabeko egia absolutuak baino. Nahiago dut nire bikoteak zeinen eder nagoen esatea loditu egin naizela entzutea baino.

Niretzat onena zer den kalkulatu jokatzeko duen jendea da atsegin dudana, eta ez beraien kontzientzia garbi eta lasai mantentzeagatik beti pentsatzen dutena esaten duten beste hori.

Lagunok, familia, ile-apaindegira joatekotan naiz. Faborez, sarraskiren bat egiten badidate ere, polita utzi nautela esan. Abisatuta zaudete.

## Zein da egilearen iritzia?

1.

- Beti egia esatea bertute bat da, hori baita zintzo jokatzea.
- Hori gaur eguneko kontua da. Ezinbestean egia esatea ez da beti bertute izan. Gure gurasoen garaian beste balio batzuk zeuden.
- Norberak erabaki behar du beti egia esatea bertutea den. Bertutea ez baita absolutua.

2.

- Idazleak nahiago du beti egia esan, eta horrela kontzientzia garbi eduki. Bestela ezin da lasai bizi.
- Nahiz eta berak beti egia esaten duen, ulertzen du beste batzuek horrela ez jokatzea. Aukera guztiak errespetatu behar dira.
- Hobe da tarteka gezurrak esatea, horrekin bizitza eramangarriagoa egiten badugu.

## 2. egitekoa

Testuan **hitza** aurkitu.

Ondoren **3** azalpen irakurriko dituzu. Azalpenari dagokion **hitza** testuan aurkitu behar duzu.

Idatzi hitza laukian, adibidean egiten den bezala.

## Adibidea:

0. (3. paragrafoan)

*Tarte hutsa.*

Hutsune(a)

1. (3. paragrafoan)

Legezkoa dena, eragotzita ez dagoena.

2. (6. paragrafoan)

Aldika, noizean behin.

3. (8. paragrafoan)

Txikizio, astakeria, basakeria.

## IDAZMENA

Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 200 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
  - eskatutakoari erantzun diozun
  - testu egokia osatu duzun
  - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

Euskaltegian argitaratzen den aldizkari batean, eztabaidak egiteko eta iritziak biltzeko atal bat ireki dute. Ikasleen iritziak jasotzeko lekua egin dute *Ikasleen artikulua* sailean.

Aste honetako gaia hau da:

### **Non geratu dira garai bateko jokaera eta manera onak?**

Artikulu bat idatzi zure iritzia emateko.

Gutxienez, **200 hitz** idatzi behar dituzu.

### **Zure iritzia idazteko, nahi baduzu, ondoko puntu hauek erabil ditzakezu:**

- Lehengo ohitura eta manera onak zeintzuk ziren? Eta oraingoak?
- Klean zer ikusten da?
- Familietan nola jokutzen da? Gurasoekin? Zaharrekin? Haurrekin?
- Eskoletan? Irakasleekin? Ikaskideekin?
- Gazteek elkarren artean? Helduekin?
- Agintariekin...?
- Zer hobetu da? Zer galdu da?
- Zein dira zuretzat manera edo jokabide onak? Eta txarrak?
- Zer aldatuko zenuke? Zer ez?



**Zirriborroetarako orria  
(orri hau ez da zuzenduko)**

Zirriborroetarako orria  
(orri hau ez da zuzenduko)

## Iritzien atala

Non geratu dira garai bateko jokaera eta manera onak?

*Idatzi hemen zure iritzia:*

---

---

---

---

5

---

---

---

---

---

10

---

---

---

---

---

15

---

---

---

---

---

20

---

# HADE



---

---

---

25

---

---

---

---

30

---

---

---

---

35

---

---

---

---

40

---

---

---

---

45

---



# HADE



---

---

---

---

50

---

---

---

---

55

---

---

---

---

60

---

---

---

---

65

---

---

---

---

70

---

# HADE



# HADE



## BIGARREN MAILAKO AZTERKETA

### ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

#### BIGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

<b>Proba idatzia</b> <b>50</b> <b>gutxienez, 28</b>	Irakurmena	%20	Gutxienez, 10	20 puntu	45 min inguru
	Idazmena	%30	Gutxienez, 15	30 puntu	60 min
<b>Ahozko proba</b> <b>50</b> <b>gutxienez, 27</b>	Entzumena	%20	Gutxienez, 10	20 puntu	25 min
	Mintzamena	%30	Gutxienez, 15	30 puntu	10 min
<b>GUZTIRA</b>		<b>%100</b>	<b>Gutxienez, 55</b>	<b>100 puntu</b>	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu denera eta 28 eta 27 proba bakoitzean. Agiria eskuratzeko ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) gai izatea. Emaitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI**.

#### Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:

**IKUSPEGI OROKORRA.** Eginkizuna betetzea, erraz ulertzea lehenbiziko irakurketan. Koherentea izatea, hari logiko bati jarraitzea.

**BALIABIDE LINGUISTIKOAK (ABERASTASUNA).** Lexikoaren aberastasuna. Erregistroa. Egitura aberatsak. Antolatzaileak, lokailuak, kohesio-formak. Testu-motari dagokion egitura.

**ZUZENTASUNA.** Mailari dagozkion egitura morfosintaktikoen erabilera. Lexikoaren erabilera. Puntuazioa. Ortografia.